BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

34

AGINDUA, 2011ko azaroaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailbururena, 2011-2012 ikasturtean, Berriatuako udalerrian (Bizkaia), «Tarine» Musika Eskola Publikoaren irekiera eta funtzionamendua baimentzen dituena.

Berriatuko «Tarine» Musika Eskola Publikoaren irekiera eta funtzionamendua baimentzeko, Berriatuko Udalak aurkeztutako eskabidea aztertu da.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendua Orokorrerako urriaren 3ko 1/19990 Lege Organikoaren 39.5 artikuluan xedatutakoa garatzeko, urriaren 27ko 289/1992 Dekretua argitaratu zen; dekretu horren bidez arautu zen Euskal Autonomia Erkidegoan musika irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak (musika-eskolak) sortzea eta jardunean jartzea. Kontuan hartuta, halaber, ikastegi honek indarrean dagoen legeriak agindutako baldintzak betetzen dituela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematen da 2011-2012 ikasturtetik aurrera ondoren zehazten den musika-eskola irekitzeko eta jardunean jartzeko:

Kode-zenbakia: 48017861.

Izen espezifikoa: «Tarine»

Izen generikoa: Musika Eskola Publikoa.

Titularra: Berriatuko udala.

Helbidea: Zeharbide 5.

Udalerria: Berriatua.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimentzen diren irakaskuntzak: 1. 2. eta 3. mailakoak.

Adarrak:

– Tresneria sinfonikoa: Saxofoia, tronpa, txirula eta tronpeta.
– Tresneria polifonikoa: pianoa, akordeoia eta gitarra.
– Bertakoak: Txistua, trikitixa, txalaparta eta panderoa.
– Bestelako joerak: Giitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta teklatuak.

2. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da, ikastetxea agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea, eta agindu honetan adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion berrikusketa eskatzera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.